

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Durango, Durango

Juan Kruz lagunari hartu diot izenburua, Igerabidek bai baitu liburu polit bat izenburu honekin. Eta Berdintasunerako Defentsa Erakundeak sortu duen kalapitarekin ondo dator izen errepikatu hori.

Durango gure nortasuna gordetzen duen izena ere bada. Francoren garaian, Santa Maria elizaren arkupetan edo zimiterioan biltzen ginenean, Euskal Herriak bere izaerari eutsi nahi izan zion, bere hizkuntza, sorkuntza literarioa, musika, kultura... zainduz eta suspertuz. Geroztik, bilakaera komertziala goa izan du Durangoko Azokak eta gauzak dezente aldatu dira. Ados. Egia da gaur egun masifikatu ere egin dela eta kulturaz kanpoko beselako bilgune ere bihurtu dela. Baina imajinatzen al duzue Durangoko Azokarik gabeko Euskal Herri bat? Txapelarekin edo pamela batekin, nahi duzuen bezala, hori atreztoa besterik ez baita. Durangoko Azokarik ez balego, asmatu egin beharko litzateke. Bestela gure literatura eta musika industria osoa *kaput*. Eta idazleek non argitaratuko litzukete beren sormen obrak. Gure ikasleek zein material erabiliko luke te eskoletan? Garai batean bezala erdarazkoa? Garai hori ezagutu ez duenak erraz hitz egiten du, baina inori ez diot opa garai haieta-



DANI BLANCO

ra itzultzea. Herri batek bere sormena bultzatu eta lagundu behar du eta Gerediaga Elkar- teak inspirazio horixe izan zuen 1960ko hamarkadan. Ahalegin handiak egin dira ordutik hona euskal ekoizpena handitzeko, hobetzeko, zabaltzeko. Batzuetan kosta egi- ten zait hainbat kritika-torpedo irenstea, Xabier Gantzarainena kasu: “Zertarako da Durango? Zer ekartzen digu? Industria mantentzeko eta Eguberritako opariak erosteko leku bat? Euskal kulturaren plaza inportante bat? Ez bada lan kontuengatik, ez naiz arri- matu ere egingo”.

Hitz hauek bere testuinguruan ulertu behar dira, baina hemen ez daukat lekurik haren aipamen osoa sartzeko. Hala ere, oso gogo- rrak dira. Egia da hori ere badela Durango, baina hori ez al da gaur- ko gizartearen ezaugarrietako bat? Hori bakarrik al da Durango. Jen- deak ez al du liburua, musika eta kultura erosten Durangon? Eros- ten badute, batzuek behintzat ira- kurri, entzun eta gozatu egingo dute ba gure ekoizpenekin? Hala yankien, espainolen edo frantse- sen esku utzi behar dugu hori dena? Zer arraio ari zaigu gerta- tzen? Akonplejatu huts bihurtu al gara? Euskal psikologok lan ederra daukaue akonplejatu guztiok desakonplejatzan. ■



Batzuetan kosta egi- ten zait hainbat kritika-torpedo irenstea, Xabier Gantzarainena kasu: “Zertarako da Durango? Zer ekartzen digu?”



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gaitza, intelektual sozialek zuzenduta- ko kultur kontsu- moari buruzko emaitzek sortu didatena. Ez dut zalantzan jarriko metodologia, horretaz deus ez dakit eta horiek hori dutela ofizio sinetsita nago. Publikoki esan digutenez, inkesta bat oinarritzat hartuta burutu dute beren diagnosis. Zazpi bat mila biztanle gal- dezkatu izan omen dituzte. Ez dakit lagin hori nahikoa den ondorio objektiboaz mintzatzeko. Badakidana zera da, nik ez dut nire burua eta are gutxiago nire inguru hurbila argazki horretan ezagutzen. Musika, irakurketa, bertsozaleasuna, zinema. Gutxi asko, kontsumitzaileak

Harridura

aukeren eria, iparramerikar produkturik ez kontsumi- tzeak dakarkidana. Baina batean eta bestetan, ez ditut hor agertzen dituzten arrakastak ezagutzen. Areago, publizitate handiz hedatutakoetatik at, urrienak, miseri- latza ikusten dut bazterretan. Euskal editoreek badakite horretaz zerbait. Ez dut uste gezurretan dabilzanik. Eta bertso saio eta kantaldietako antolatzaileak, berrehun bat biltzeaz, berrogei talo xingar saltzeaz harro jarrai- tzen duten horiek, flipatzen ari dira emaitza hauekin. Bikain. Hauteskunde usaina dario asuntoari. ■